

Gurpil- gunea

Bizikletak
konpondu,
berreskuratu eta
biziberritzeko
gunea



Gurpil- gunea



Mugikortasunari lotutako hondakinak gutxitzea eta berrerabilpena sustatzea helburu

Bizikletaren erabilera areagotzea ezinbestekoa da eskualdean mugikortasun eredu jasangarri bat sustatzeko. Horretarako, ekonomia zirkularraren eredu oinarri izanda, bizikleta-berrerabilpen gune bat sortu dugu Tolosako Zumardi Handian, erabiltzen ez diren bizikletak eta horien piezak berreskuratu eta norbere bizikletak konpontzeko, edota salerosketa edo truke-gune izateko.



Bizikletak konpontzeko tresnak izango dituzu eskura.



Ikastaro eta tailerrak antolatuko dira tarteka, ikasteko.



Aditu baten aholku eta laguntzak jaso ahal izango dituzu.



Bazkide izatea beharrezkoa izango da gunea erabiltzeko.

Berreskuratu erabiltzen ez diren bizikleten piezak zeure bizikleta konpontzeko: berrerabiliz, mugitu gaitezen modu jasangarriago batean.

Helburuak:

Zer lortu nahi dugu?	Hondakinen gutxitzea Zabortegetan dauden edota erabiltzen ez diren bizikleta zaharrak berreskuratzea	Berrerabilpena Bizikletak konpondu eta bigarren bitzitza bat ematea	Konponketa gunea Bigarren eskuko bizikleten erabilera sustatzeko konponketa gunea sortzea.
Ezagutza Bizikleten mekanika ezagutzak area-gotzeko tresnak eskaintzea	Truke gunea Bigarren eskuko bizikleta eta piezen salerosketa edota truke gunea eratzea.	Enpleagarritasuna Bazterte arriskuan dauden kolektiboei ikastaroa eskaintzea, beren enpleagarritasuna sustatzeko.	Aukera berdintasuna Bazterte arriskuan edota mugikortasun arazoak dituzten kolektiboei bizikletak prestatzeko sistema diseinatu eta kudeatzea.



Gurpilgunea

Tolosako Zumardi Handian gaude.

Ordutegia:

- Astearteak 10:00etatik 12:00etara.
- Ostegunak eta ostiralak 17:00etatik 19:00etara.


** Bolondres gehiago hurbiltzen badira, ordutegia zabaldu egingo da.*

Gurpilgunea erabiltzeko bazkide egin beharko da

Gurpilguneke tresneria erabiltzeko eta aholku zerbitzua jasotzeko, bazkide izan beharko da. Horretarako, idatziguzu info@zumardia.eus helbidera.

Bazkidetza: 15 euro urtean.





Sustatzaileak:



Laguntzaileak:



Laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAIALA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE